


Nº . 3. ZB // DICIEMBRE 2019 ABENDUA

BULETINA EL BOLETÍN

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA
FAKULTATEA / FACULTAD DE RELACIONES LABORALES Y
TRABAJO SOCIAL



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LAN HARREMAN
ETA GIZARTE LANGINTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE RELACIONES LABORALES
Y TRABAJO SOCIAL



02 Dekanoaren agurra

Berriak

03 Fakultatean graduako eta graduondoko 294 ikasle sartu berri dira 2019-20 ikasturtean

04 Gizarte Langintzako Graduako 2015-2019 promozioaren graduatze ekitaldia

05 Ekitaldiak, jardunaldiak eta mintegiak Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean.

09 «Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza» unibertsitateko espezialista graduondokoaren beste edizio bati hasiera eman zaio (2019-2020 ikasturtea)

10 Gizarte Langintzako Gradua eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua dira ondoen ordaindutakoak 2015ean egresatutakoaren artetik LANBIDEn arabera

11 Fakultateko Berdintasun Batzordeak genero indarkeriaren aurkako UPV/EHUren protokoloa zabaltzeko tailer bat antolatu du

14 Herritarren parte hartzeari buruzko ikerketa proiektua, Noemí Bergantiños eta Ainhoa Berasaluze fakultateko irakasleek eginga

Elkarrizketak

16 Isabel Vázquez: Guztira hamaika ikaslek egingo dute Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduako ibilbide duala 2019-2020 ikasturtean.

19 Belén Hernández eta Beatriz Badillo: Fakultateko ikasleek Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatea bisitatu dute.

DEKANOAREN AGURRA

Informazio aldizkari berri honen bidez, gure fakultatean egiten eta gertatzen diren zenbait gauza garrantzitsuri buruzko informazioa zabaltzen jarraitu nahi dugu, hala nola diplomak ematea, prestakuntzarako jardunaldi eta ikastaroak, irakaskuntzen ikerketa eta garapen prozesuak eta gure egresatuen laneratzea, bai eta unibertsitateari lotuta dauden hainbat pertsonen iritziak eta bizipenak ere. Ikusiko duzunez, prestakuntza eta ezagutzen hedapena oinarritzat hartuz gizarteari ekarpena egiteko ari gara lanean, eta hori guztion ahaleginaren emaitza da. Informazio aldizkari honetan ekarpenak egiten jarrai dezazun animatu nahi zaitut, hobetzeko iradokizunak bidaliz, bai eta hurrengo argitalpenetarako edukien ideiak bidaliz ere. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot Amaia Inza eta Javier Cerrato dekanordeei informazio aldizkari hau koordinatzen eta gauzatzen egindako ahaleginagatik eta lan onagatik.


Angel Elías Ortega

aurkibidera bueltatzea

FAKULTATEAN GRADUKO ETA GRADUONDOKO 294 IKASLE SARTU BERRI DIRA 2019-20 IKASTURTEAN

Gehienak (206) fakultatean ematen diren Gizarte Langintzako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako graduetan matrikulatutako ikasle berriak dira. Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu bikoitzean 32 ikasle berri matrikulatu dira.

Graduondoko ikasle berrietatik, 37 «Laneko Segurtasun eta Osasuna» eta «Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa» masterretako ikasle berriak dira, eta 19 «Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza» eta «Gizarte eta lan arloko aholkularitza eta auditoretza» berezko tituluetakoa; guztira 56 pertsona.



aurkibidera bueltatzea

GIZARTE LANGINTZAKO GRADUKO 2015-19 PROMOZIOKOEN GRADUATZE EKITALDIA

Ekainaren 27an, Gizarte Langintzako gradudunen 2015-2019 promozioaren graduatze ekitaldia egin zen Arabako campuseko Letren Fakultateko areto nagusian. Honako hauek egon ziren ekitaldian: Ángel Elías fakultateko dekanoa, Jon Zarate UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea eta Gotzon Villaño Arabako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialeko presidentea. Miren Ariño eta Eguzki Urteaga irakasleak izan ziren ikasleek 4 promoziorako aukeratu zituzten amabitxia eta aitabitxia.



Ikasleez eta haien senideez gain, gure fakultateko irakasleak ere izan ziren ekitaldian, baita Arabako campuseko fakultateetako dekanotzetako ordezkariak ere.



aurkibidera bueltatzea

EKITALDIAK, JARDUNALDIAK ETA MINTEGIAK LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEAN

Irailaren 16an, **Trabajo, Precariedad y Fragmentación de la Clase Trabajadora: Perspectivas de la Resistencia al Neoliberalismo** mintegia egin zen Leioako Fakultatean, Jorge Elizondo Rosarioko Unibertsitate Nazionaleko (Argentina) Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzenbideko irakaslearen eskutik.

5

Urriaren 2an, 3an, 8an eta 9an emakume prostitutei harrera egiten eta orientabidea ematen lan egiten duen Gizarterako elkarteak hamabi orduko prestakuntza ikastaro hau eskaini zuen graduako ikasleentzat: **Prostitución: ¿otra forma de violencia contra las mujeres? Una aproximación conceptual para la intervención social desde la perspectiva de género.**

Urriaren 10ean, Gizarte Langintzaren XII. Jardunaldia egin zen Gasteizen, eta, urtero bezala, Arabako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialarekin elkarlanean antolatu zen. Aurten, hau izan zen gaia: **gizarte langintza eraldaketa digitalaren aurrean**. Gizarte langileek eskura dituzten tresna teknologikoak etengabe aldatzen eta berritzen diren ingurune batean nolako erronkei aurre egin beharko dieten eta erronka horiei buruzko funtsezko gaiak aztertu ziren. Oraingo honetan, José María Regalado, gizarte langilea eta gaitasun digitaletako prestatzailea, Judit Castellví Bartzelonako Unibertsitateko Fakultateko irakasle eta ikertzailearekin batera, gizarte langintzaz eta eraldaketa digitalaren ondorioez mintzatu ziren. Ondoren, bigarren zatian, gizarte langintzako lanbide tresna digitalak aztertu ziren esperientzia zehatzetan oinarrituz. Bigarren zati honetan, Estíbaliz Cáceresek (Saregune) eta Nacho Santásek (Madrilgo Udala) parte hartu zuten.

Urriaren 15ean, **«Dos Experiencias en la Defensa de los Derechos de las Mujeres: El Salvador y Perú»** izeneko mintegia izan zen Leioan. Hizlariak Alto Trujilloko (Peru) Emakumeen Defentsa Bulegoko koordinatzaile Maria Ernestina Lozano Mejía eta El Salvadorreko Gizarte Zerbitzu Pasionistako Giza Eskubideen Saileko legelari Johanna Guadalupe Ramírez García izan ziren.

Azaroaren 8an, Gizarte Langintzako Prestakuntza eta Topaketa Profesionaleko XIX. Jardunaldia egin zen Letren Fakultatean, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak antolatuta. Jardunaldi horren gai nagusia hau izan zen: **Dinamika erlazionalak gizarte esku hartzean: subjektuak, instituzioak eta sareak.** Hizlari nagusia Libertad González Abad izan zen, Gizarte Lanean doktorea eta familia terapeuta. Irakasle, tutore eta practicum irakasgaiko ikasleen arteko topaketa informalarri unibertsitate pabiloiko kafetegian eskainitako tartearen ondoren, Raúl Castrillok, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiko sustapen arloko arduradunak, parte hartu zuen, eta esku hartzeko ikuspegi erlazionalari buruzko sistematizazioaren adibide praktiko bat azaldu zuen.

Azaroaren 7an, David Muñoz Rodríguez eta Antonio Santos Ortega Valentziako Unibertsitateko Soziologia eta Gizarte Antropologia Saileko irakasleen **Las nuevas precariedades en la época del emprendimiento** Baladrek eta Zambra elkarteak argitaratutako liburuaren aurkezpena egin zen. Liburuaren argumentu nagusia prekarietatea, orain arte laneko fenomeno soiltzat hartu dena, pertsonen bizitzako esparru guztietara pixkanaka hedatzea da.

Azaroaren 11n, Bizkaia Aretoko Baroja aretoan **«Substantzia arriskutsuak: esperientziak eta erronkak»** mahai ingurua egin zen, **Fakultateko «Laneko Segurtasuna eta Osasuna» masterrak** antolatuta. Alberto Alonso Martín jauna, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko (OSALAN) zuzendari nagusia, izan zen mahaiburu, eta Aitor Basañez Llantada, masterreko zuzendaria, moderatzailea. Hizlariak honako hauek izan ziren: Marta Zimmerman Verdejo, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalako Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetarako Saileko zuzendaria; Marta Salinas Avellaneda, OSALANeko zuzendariorde teknikoa; Julen Zuazabeitia Olabe, Osarteneko Prebentzio Teknikoko Saileko zuzendaria; eta Juan Carlos Herrero Elexpuru, Galkymeko gerentea. Mahai inguruan jorratu ziren gaiak honako hauek izan ziren: egoeraren diagnostikoa eta lan eremuan substantzia arriskutsuak erabiltzearen ondorioak; arrisku kimikoari administratibotik heltzea; eta industrian eta ETEetan eragile kimikoen ebaluazio eta prebentzioaren arloan izandako esperientziak.

Azaroaren 25ean **«II. Jardunaldia. Itun Ekonomikoa aztergai»** egin zen. Roberto Ugalde Fakultateko Finantza Ekonomia II Saileko irakasleak antolakuntzan parte hartu zuen. Jardunaldian, UPV/EHUko Itun Ekonomikoaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegiko Eduardo Alonsok, «Sarrera historikoa eta itun ekonomikoaren enkaje juridikoa» hitzaldia

eskaini zuen; eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Joseba Garmendiak, «Euskal finantzazio sistema. Lurralde historikoen autonomia tributarioa» hitzaldia.

Leioako Fakultateko «Dolores Ibarruri» gradu aretoan, azaroaren 14an, Ikasle Asanbladak antolatutako «**Polikiroldegiko langileen egoera**» hitzaldia egin zen, eta, azaroaren 27an, Eraginek «**Lan harreman eredu berriak**» hitzaldia eskaini zuen, Ikasle Asanbladak antolatuta.

7

Azaroaren 25ean «**Derecho del trabajo y de la seguridad social: derechos digitales de las personas trabajadoras y problemas aplicativos en el marco de las contratas y subcontratas**» V. jardunaldiak antolatu ziren Bizkaia Aretoko Oteiza aretoan, Fakultateko «Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa» masterrak, Enpresaren Zuzenbide Sailak eta Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak antolatuta. Carlos H. Preciado Domènechek «Los Derechos digitales de las personas trabajadoras. Aspectos laborales de la LO 3/2018 de Protección de Datos y Garantía de los Derechos digitales» hitzaldia eskaini zuen; eta Enrique Nores Torresek «Problemas aplicativos (y/o interpretativos) del art. 42 ET» izenburudun hitzaldia eskaini zuen. Ondoren, Jaime Segalés Fidalgok moderatutako mahai inguru bat egin zen, eta honako hauek parte hartu zuten: Juan Carlos Benito Butrón, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salako magistratua; Garbiñe Biurrun Mancisidor, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salako presidentea; Juan Carlos Iturri, Valentziako Unibertsitateko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzenbideko irakaslea; eta Carlos H. Preciado Domènech, Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salako magistratu espezialista.

Azaroaren 28an, **orientazio orofesionaleko jardunaldia** egin zen **Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu**ko ikasleentzako, Isabel Vázquez Árias Praktiken dekanordeak antolatuta. Bertan pertsona hauek parte hartu zuten: Xabier Txopitea, UPV/EHUko Enplegu Guneetako teknikaria; Guillermo Gumb Hernández, Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialeko burua, «Gizarte Graduatu Kolegiatuen zereginen egoera» hitzaldia eskaini zuen; Itziar González, EAEko Lan Ikuskaritzaren zuzendariordea, Lan Ikuskaritzan oposaketa bidez sartzeko moduari buruz mintzatu zena; Mikel Elkorobarrutia, Fakultateko Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduoko ikasle ohia, «Giza baliabideen kudeaketa: Gure Titulazioaren Ikasle ohi

baten esperientzia» hitzaldiarekin; eta Laura Segura, Prevenor SLko zuzendaria, «Prebentzio auditoria eta kanpoko prebentzio zerbitzuaren kudeaketa» hitzaldia eskaini zuena.

Abenduaren 4an **«La renta básica: ¿Una utopía irrealizable o un gran reto posible?»** hitzaldia antolatu zen Ekonomisten Euskal Elkargoaren Donostiako egoitzan, eta aldi berean Bilboko eta Gasteizko egoitzetatik eman zuten bideokonferentzia bidez. Bilera teoriko-praktiko bat izan zen, Javier Iñiguez del Valek –oinarrizko errentan aditua da Euskadiko Mugarik gabeko Ekonomialariak elkartean– eta Ángel Elías Ortega UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko dekanook zuzendua, biak ala biak «ToShare begiratokia: Aberastasunaren banaketa zuzen baten alde» ekimeneko kideak.

aurkibidera bueltatzea

«GIZARTE ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA BERRIKUNTZA» UNIBERTSITATEKO ESPEZIALIZTA GRADUONDOKOAREN BESTE EDIZIO BATI HASIERA EMAN ZAIO (2019-2020 IKASTURTEA)

9

Urriaren 8an eman zitzaion hasiera ofiziala «Gizarte zerbitzuen kudeaketa eta berrikuntza» unibertsitateko espezialista graduondokoaren tituluaren 2019/2020 edizioari. Ongietorri eta inaugurazio ekitaldian honako hauek hartu zuten parte: Arkaitz Fullaondo, ikastaroko zuzendarikidea eta Fakultateko Akademia Antolamenduko dekanordea; Amaia Inza, Fakultateko ataleko koordinatzailea eta lehen dekanordea; Marian Olabarrieta, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria; Joseba Zalakain, Gizarte Zerbitzuei buruzko Dokumentazio Zentroko (SIIS) zuzendaria; eta Pablo Moratalla, Sareen Sarea elkartekoa. Gainera, graduondokoaren aurreko edizioko ikasleek ikasturtean zehar aztertu zituzten gizarte zerbitzuei buruzko gogoeta batzuk partekatu zituzten bertaratutakoekin.



GIZARTE LANGINTZAKO GRADUA ETA LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADUA DIRA ONDOEN ORDAINDUTAKOAK 2015EAN EGRESATUTAKOEN ARTETIK LANBIDEREN ARABERA

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua da, halaber, langabezia tasa txikiena duena arlo ekonomiko-juridikoko graduen artean.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) ikasleen laneratzeari buruz Lanbidek egindako azken inkestak, 2015eko promozioiko ikasleei buruzkoak, agerian uzten du ikasle horien % 85ek beren gaitasunekin bat datorren enplegua dutela (lanbide trebakuntzaren mailari dagokion enplegua) titulazioa lortu eta hiru urtera, eta lau ikaslelik hiruk beren graduko ikasketekin guztiz bat datorren enplegua aurkitu dutela denbora tarte berean.

Fakultatean irakasten diren bi graduek, dagozkien jakintza arloetan, bereizgarri dute soldata handiena dutela; izan ere, Gizarte Langintzako Graduak du ordainsaririk onena gizarte zientzien arloan (1.653 €, batez beste), eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduak arlo ekonomiko-juridikoan (1.522 €, batez beste). Gainera, langabezia tasa txikiena duen gradua da (titulazioko egresatu guztien % 3,8).

LANERATZEARI BURUZKO LANBIDEREN INKESTA (2019) EMAITZA NABARMENENAK JAKINTZA ARLOA

ADIERAZLEA	JAKINTZA ARLOA	
	Gizarte zientziak	Ekonomiko-juridikoa
Egresatutako pertsona gehien	Lehen hezkuntza (468)	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (618)
Ikasketekin bat datorren lana	Gizarte hezkuntza (% 94)	Zuzenbidea (% 87)
Langabezia tasa txikiena	Pedagogia (% 3,3)	Lan Harreman eta Giza Baliabideak (% 3,8)
Lanaldi oso gehien	Publizitatea eta Harreman Publikoak (% 88,6)	Marketina (% 94,1)
Soldatarik handiena	Gizarte lana (1.652 €)	Lan Harreman eta Giza Baliabideak (1.522 €)

Iturria: Lanbide

Emaitza guztiak esteka honetan ikus daiteke:

<https://www.ehu.eus/documents/10136/12435146/doc+insercci%C3%B3n+laboral+EU/ec09bcb1-d879-fecf-f33d-c4ce5fd8e234>

aurkibidera bueltatzea

FAKULTATEKO BERDINTASUN BATZORDEAK GENERO INDARKERIAREN AURKAKO UPV/EHU-REN PROTOKOLOA ZABALTZEKO TAILER BAT ANTOLATU DU

Tailerraren beste helburuetako bat berdintasunarekin eta genero ikuspegiarekin lotutako graduiko ikasgaiak identifikatzea izan zen.

11



Azaroaren 25a dela eta (emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna), gure Fakultateko Berdintasun Batzordeak tailer bat antolatu zuen. Tailer horren helburua zen, alde batetik, Berdintasun Zuzendaritzak egindako genero indarkerien aurkako UPV/EHUren Protokoloa zabaltzea, eta, bestetik, datozen ikasturteetarako, data zehatz horren inguruan gure graduatan ematen diren irakasgaietatik identifikatzea zeintzuk egon daitezkeen zuzenean eta zeharka berdintasun eta genero ikuspegiarekin lotuta. Tailer horretan kolektibo guztietako pertsonak parte hartu zuten: IRI, AZPko langileak eta ikasleak.

Parte hartzaile guztiek adierazi dute UPV/EHUK genero indarkerien aurka berriki argitaratu duen testua ezagutzen dutela, baina aitortu beharra dago agian edukia ez dela zehaztasunez ezagutzen. Protokoloa zabaltzeko eta horri buruz gogoeta egiteko ekintza baten beharra dago, bada.

Protokolo honek hainbat indargune ditu: hala nola edozein indarkeria mota barnean hartzea (sinbolikoa ere bai), unibertsitatea osatzen duten pertsona guztiak eta esparru guztiak barnean hartzea eta LGTBIO kolektiboa barnean hartzea, salaketak Berdintasun Zuzendaritzatik bertatik izapidetzea, salaketa hirugarren pertsona batek ere egiteko aukera, eta bere jarduera eremua unibertsitatetik kanpoko espazio fisikoetara ere zabaltzea, baldin eta unibertsitatearekin kontratu loturaren bat badute, unibertsitatearekin lotura duten pertsonekin lotuta dauden eremu birtualak eta komunikabideak barne. Hala ere, ez da ahaztu behar zenbait ahultasun daudela, hala nola protokoloa indarkeria zuzenei aurre egiteko diseinatuta dagoela eta egiturazko indarkeria kanpoan geratzen dela.

Azken batean, protokoloa aurrerabide eta tresna dela uste da, batez ere prebentzio eta harrera mailan, baina ez dugu ahaztu behar GUETek (Gasteizko Unibertsitateko Emakumeen Taldea) eta beste talde batzuek zalantzan jartzen dutela. Gure fakultatean, oraindik ere zehaztu gabe dago protokoloaren garapena eta barne komunitateko hedapena. Lan Harremanen Eskolak 2002an onartu zuen Berdintasun Plana, eta, beraz, gaur egun interesgarria litzateke hura ebaluatzea eta egindako diagnostikoa eguneratzea. Planak irakaskuntzan genero ikuspegia txertatzera behartzen du; beharrezkoa da genero ikuspegia irakasgai guzti-guztietan txertatzea.

Gure fakultateko egungo egoera aztertzen badugu, Gizarte Langintzako Graduan genero berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko bi irakasgai espezifiko daude. Beste bederatzik, GRALak barne, generoari buruzko ikuspegiak edo edukiak dituzte (2011/2012 ikasturtetik, GRALen % 38k genero ikuspegiarekin zuzenean edo zeharka lotutako gaiak dituzte). Gainerako ikasgaietan, genero ikuspegia zeharka landuko dela aipatzen da. Genero arloko ikuspegia eta gaia lantzen duten GRAL ugari egotea adierazletzat hartu behar da. Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduari dagokionez, gai hori zuzenean lantzen duen irakasgai bakarra dago, beste irakasgai batzuetan zeharka lantzen bada ere. Guztizko 79 GRALetatik 16k dute generoaren arloko ikuspegia edo gaia.

Egungo azterketarekin jarraituz, Edurne López irakasleak barneko galdetegi informal bat bidali zuen, generoa, aniztasun funtzionala eta zeharkako beste gai batzuk ikasgaietan zenbateraino zeuden txertatuta egiaztatzeko. Espero ez ziren ikasgaietan ere zeharka sartuta zeudela ikusi zen. Baina batzuetan irakasleek ez zela beharrezkoa uste zuten. Ez da ahaztu behar Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan erraza dela edukian txertatzea, oso prestakuntza juridikoa baita.

Tailerreko azken gogoeta gisa, adierazi zen gaur egun genero analisia gizartearen errealitate eta alderdi guztietan aplikatzen ari dela, eta horrek irakasleen berrikuntza handia eskatzen du, eta, ildo horretan, prestakuntza beharrezkoa da. Beraz, irakasgai horretan ezagutzak dituzten irakasleak behar dira. Genero ikuspegia zeharka lantzea nahitaezkoa bada ere, gaia menderatu ezean, horri heltzea kaltegarria izan daiteke. Beraz, ezinbesteko zeharkako edukia dagoenez, beharrezkoa da irakasleek gutxieneko ezagutza bat izatea. GRALei dagokienez, kasu batzuetan genero ikuspegia barne hartzen badute ere, horrek irakasleen sentsibilizazioa adierazten du, baina ezin dugu esan hori ikasketek eskaintzen duten prestakuntzaren ondorio bakarrik denik; izan ere, gaur egun, kanpoko prestakuntza eta eztabaida sozial ugari dago horri buruz.

13

Etorkizunera begira, Berdintasun Batzordeak neurriak hartu behar ditu irakasgai guztietan eta, oro har, unibertsitateetako bizitzan eta antolaketan genero ikuspegia txertatzen dela bermatzeko, eta, are gehiago, administrazioaren esparruan berdintasuna eta genero analisia lantzeko beharra ikusten da.

aurkibidera bueltatzea

HERRITARREN PARTE HARTZEARI BURUZKO IKERKETA PROIEKTUA, NOEMÍ BERGANTIÑOS ETA AINHOA BERASALUZE FAKULTATEKO IRAKASLEEK EGINA

Proiektuak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hobetzen lagundu nahi du, lehen mailako arreta erdigunean jarriz eta parte hartzea sustatzeko helburuan sakonduz.

«EAEko gizarte zerbitzuetan parte hartzea: EAEko udaletako gizarte zerbitzuetan parte hartzeko mekanismoen ezaugarriak eta analisia» izeneko proiektua UPV/EHUko Unibertsitatea-Gizarte arloko proiektuen deialdiaren barruan dago. Helburu nagusia da herritarrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari (GZES) parte hartzeko gaur egun dituzten moduak ezagutzea eta parte hartzea bultzatzeko mekanismoak eta estrategiak ezartzen laguntzeko ekintza ildoak proposatzea. Ikerketak udaleko gizarte zerbitzuen arloan parte hartzeko mekanismoak identifikatzea eta horien ezaugarriak aztertzea proposatzen du, bai eta arlo horretan parte hartzeko aukerak eta zailtasunak aztertzea ere.

Helburu horiei erantzuteko, ikerketak metodologia misto kuantitatibo eta kualitatibo bat proposatzen du. Ikuspegi kuantitatiboari esker, gizarte zerbitzuen lagin garrantzitsu bati bidalitako inkesta batetik abiatuta, GZESn parte hartzeko mekanismoak deskribatu eta horien ezaugarriak aztertu ahalko dira. Bestalde, hurbilketa kualitatiboa, elkarrizketa sakonen eta eztabaida taldeen bidez, arlo horretako praktika parte hartzailea aztertzeri bideratuko da.

Azterlanaren oinarria da azken urteotan herritarrek parte hartzeko hainbat modu ugari egin direla administrazio publiko guztietan, eta, horrela, zenbait egilek «berrikuntza demokratikoa» deritzoten prozesua sortu da. Prozesu horren helburua gai publikoetan eztabaidatzeko, hurbiltasunerako eta denen artean erabakiak hartzeko mekanismoak eta espazioak bilatzea da. Horretarako, funtsezkoa da partaidetza prozesuak antolatzea eta herritarrek parte hartzeko mekanismoak eta espazioak ezartzea, erabaki publikoetan herritarren interesak egon daitezen.

Halaber, parte hartzearen garrantziak ongizate estatuaren esparru guztietan eragin handia izan duela egiaztatu da. Esate baterako, osasunaren esparruan nabarmendu da parte hartzeak garrantzi handia duela erabaki partekatuak hartzeko eta osasun sistemak demokratikoagoak izateko. Gizarte zerbitzuen esparrua ez da joera horretatik kanpo geratu, eta hainbat adierazpen,

araudi eta esperientzia egin dira, gizarte zerbitzuetako arretarekin lotutako prozesuetan eta espazioetan erabiltzaileak, erakundeak eta herritarrak, oro har, partaide izan daitezten.

Azterlanaren premisetako bat da gizarte zerbitzuen sistemaren erabiltzaileen parte hartzeak eta erantzunkidetasunak dimentsio bikoitza dutela. Alde batetik, lehen mailako arretako gizarte politiken ereduaren definizioari dagokionez duen parte hartzea, gizarte zerbitzuen hartzaile den mankomunitate, herri edo auzoko herritarren parte baita. Bestalde, eta haren loturarekin estuki lotuta, erabiltzaileak bere esku hartze sozialeko prozesuan parte hartzea egongo litzateke (diagnostikoa eta ekintza plana). Sistemaren erabiltzaileen parte hartzearen bigarren dimentsio hori landu da gehien diziplina eta lanbide ikuspegitik, bere objektu posizioa diagnostiko, plangintza, egikaritze eta ebaluazio prozesuen subjektu bihurtzeko, eta, horrela, artatutako pertsonaren eta erreferentziazko profesionalaren artean partekatutako esku hartze sozialerantz aurrera egiteko. Esku hartze horrek, zalantzarik gabe, esku hartzean lortu nahi diren helburuak lortzen lagundu behar du, prozesuarekiko bata bestearenganako konpromisoa sustatzen baita.

GUZTIRA 11 IKASLEK EGIN DUTE LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADUKO IBILBIDE DUALA 2019-20 IKASTURTEAN

Prestakuntza dualak titulazioaren hautazko 48 kredituak ordeztzen ditu, eta horiei GRALeko 6 kredituak gehitu beharko litzaizkieke.

Ikasle horiek enpresarekin lankidetzan aritzen dira eskolaldian (irailtik hurrengo urteko ekainera), eta egunean enpresaren lan egutegiko 6 ordu ematen dituzte enpresaren jardueretan. Bi fase bereiz daitezke, «Egonaldia enpresan I» eta «Egonaldia enpresan II» irakasgaietara dagozkienak. Guztira 1.170 orduko egonaldia enpresan, eta horiei GRALa gehitu beharko litzaieke.

Ikasle batek prestakuntza dualeko prozesua hasten duenean, alde aurretik banakako lanbide proiektua definitu behar da. Horretarako, ibilbide dualaren arduraduna eta unibertsitateko tutorea enpresara joango dira eta, esleitutako begiralearekin batera, helburuak zehaztuko dituzte, eta ibilbidea planifikatu. Azkenik, hitzarmena egiten da, edo ikaslea kontratatzen da UPV/EHUren eta ikasketa dualak egitea aurreikusten duen enpresaren arteko lankidetzarako esparru hitzarmen baten bidez. Era berean, enpresaren eta ikaslearen arteko harremana lan kontratu baten bidez edo prestakuntza dualeko hitzarmen baten bidez –ordaindua eta gizarte segurantzaren barne– ezartzen da (aukera hori hautatu du gure fakultateak, ez baitago unibertsitateko prestakuntza dualerako prestakuntza kontraturik). Era berean, ikastetxearen eta enpresaren arteko txandakatzea prestakuntza hitzarmen baten bidez formalizatzen da, eta hiru aldeek sinatu behar dute: ikasleak, fakultateak eta enpresa kolaboratzaileak.

Prestakuntza dualean dauden ikasleen jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez, enpresa barruko prestakuntza prozesuan begirale batek laguntzen du, eta unibertsitateko tutore batek. Tutore horiek arduratzen dira jarraipena eta ebaluazioa egiteaz, eta ikasleek beren prestakuntzaren autoebaluazioa egiten dute, bai eta prestakuntza prozesu osoaren balorazioa ere.

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan prestakuntza dualeko ibilbidearen garapenari eta ezarpenari buruzko xehetasun gehiago jakiteko, Isabel Vázquez elkarrizketatu dugu, ibilbide horren ardura duen fakultateko dekanordea.

- Nola sortu zen ibilbide dual hau martxan jartzeko ideia?

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko Egoitzaren Batzordean 2017ko ekainaren 1ean egin zen eskaera, eta unibertsitateak titulazio dualen aukera eskaini beharra eta ikasketa plana aldatzeko prozesua hasi beharra aztertu zen. Hiru aste geroago, 2017ko ekainaren 21ean, prestakuntza dualari buruzko lantalde bat bildu zen. Talde horrek hasierako eskema bat proposatu zuen, eta, horren arabera, bi irakasgai izango zituen ibilbide bati hasiera eman zitzaion: Egonaldia Enpresan I eta Egonaldia Enpresan II, bakoitza 24 kreditukoa. Irakasgaiok laugarren ikasturteko lehen eta bigarren lauhilekoetan emango ziren (ikasturte horretako hautazko irakasgai guztiak ordezkaturik), eta horiei Gradu Amaierako Lana gehituko zitzaion. Lehen promoziorako, 5 eta 8 ikasle artean prestatu zen, eta hurrengo urteetan 10 ikasle izatea nahi zen.

2017ko abenduaren 20ko Egoitzaren Batzordean aho batez onartu zen ibilbide duala sortzeko proposamena, bai eta 7 irakaslek, AZPko teknikari batek eta ikasle batek osatutako batzordea sortzea ere.

Onarpen horren ondoren, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan irakasten duten 13 sailen aldeko akordioa eskatu eta lortu zen, bai eta enpresa askok ibilbide dual horretan laguntzeko borondatea adieraz zezatela ere.

UPV/EHUk ibilbide dualaren proposamena onetsi ostean, Unibasq-ek aldeko txostena egin zuen 2018ko maiatzaren 23an.

- Zeintzuk izan dira ezarpenaren zailtasunik garrantzitsuenak?

Iazko 2018/2019 ikasturtean abiarazi zen ibilbide duala, eta prozesu osoa berria eta konplexua zen. 2019/2020 ikasturte honetan, ibilbide hau martxan dagoen bigarren urtea da, eta hamaika enpresa eta hamaika ikasle ari dira ibilbide duala egiten. Iazko ikasturtean lortutako esperientziari esker, eskarmentu handiagoa eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna gehiago ditugu. Oraitxe bertan, eta prozesuaren fase guztiak bizi izanda, zailena enpresak erakartzea da, asko oraindik ez baitira animatzen lankidetzara sistema horretan sartzea. Oso nekeza da ahalik eta enpresa gehienengana iristen saiatzea, gure helburua bete ahal izateko: ikasturte bakoitzean prestakuntza duala gutxienez 10 pertsonak egitea.

- Zer ematen die prestakuntza dualak ikasleei? Eta fakultateari?

Prestakuntza duala oso onuragarria da parte hartzaile guztientzako: ikasleentzako, enpresentzako eta unibertsitatearentzako. Izan ere, prestakuntza horren ideia da ikasleak, ikuskapen akademiko eta profesional bikoitzarekin, lantokian osatzen dituela hezkuntza sisteman hasitako ikaskuntzak. Halako ikasketek gero eta interes handiagoa dute mundu osoan, hainbat esparruren interesak bateratzeko formula eraginkorra direla egiaztatu baita: enpresenak (langile kualifikatuak erakartzea), hezkuntza sistemarenak (lan merkatuak erraz xurga ditzakeen gaitasunetan oinarritutako prestakuntza) eta administrazioarenak (enplegua eta garapen ekonomikoa).

Prestakuntza dualak abantailak ditu ikasleentzat; hots, prestakuntza prozesuan enpresan egiten duten lanak lotura estua du unibertsitate graduako edukiekin, eta, beraz, lagungarria da haien gaitasunak eta ahalmen pertsonal eta profesionalak hobetzeko, eta lan merkatuari balioa gehitzen dio. Era berean, laneratzeko oso tresna ona da: batzuetan, ikaslea prestatu duen enpresak berak erabakitzen du enpresako egonaldien amaieran kontratatzea. Beste batzuetan, enpresak ez du behar hori, baina ikaslea lan merkatuan sartzen da aurretiazko esperientzia horrekin eta, beraz, baldintzarik onenetan.

Prestakuntza dualak gure fakultateari egiten dion ekarpenari dagokionez, esan behar da funtsezko beste eragile bat garela prestakuntza dualean; izan ere, funtsezko zeregina dugu ikasle bakoitzarentzat berariazko ibilbide dualaren prestakuntza plana prestatzeko, eskuratutako ezagutzak ebaluatzeko eta prestakuntza garatzeko irizpideak ezartzeko. Prestakuntza dualaren ezaugarri nagusia eta abantaila nagusia enpresak prestakuntzan duen parte hartze garrantzitsua da, eta hori onuragarria da gure

fakultatearentzat, enpresekiko harremanak estutzeko aukera ematen digulako. Hori funtsezkoa da praktika profesionalera bideratutako prestakuntzaz ari garenean.

- Zein da ikasleen eta enpresen gogobetetze maila abian jarri eta lehenengo urtearen ondoren?

2018/2019 ikasturtean, parte hartzen duten eragile guztiek (ikasleek, irakasle tutoreek eta begiraleek) prestakuntza prozesu duala baloratzeko azterketa bat egin zuten. Enpresetako begiraleen artean, emaitzak oso onak izan dira, item guztiek 5etik 4ko edo gehiagoko balorazioa izan baitzuten. Oro har, honako hauek oso balorazio ona jaso dute: «egonaldiaren plangintza, antolakuntza eta koordinazioa», «ikasleak egonaldian ikasitakoa», «unibertsitateak ikaslearen ikaste prozesuari egindako ekarpena».

Ikasleak ere oso pozik daude euren esperientziarekin. Hainbat enpresatan prestakuntza duala egiten duten gainerako ikaskideekin elkarlaneko ikaskuntza sustatzea izango litzateke garatu beharreko puntuetako bat, bai eta enpresetako begiraleek gutxienez egonaldiaren lehen hilabeteetan ikasleen zalantzak argitzeko prestasun handiagoa izatea ere; hala ere, gure ustez, begiraleez gain, beste langile batzuek ere betetzen dute eginkizun hori enpresetako egonaldiako lanpostuetan.

- Zer etorkizun du ibilbide dual honek?

Iazko ikasturtean (2018/2019) sei pertsonak amaitu zuten ibilbide duala, baina 2019/2020 ikasturte honetan hamaika lagun ari dira ibilbide hori egiten; beraz, badirudi aurrera egingo dugula. Hala ere, ez da ahaztu behar prestakuntza dualak aurrera egin dezan beharrezkoa dela enpresen konpromisoa eta lankidetzak, maila praktikoan unibertsitateko prestakuntza babestuz. Horrek unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzak estua eskatzen du, gero eta ikasle gehiagori Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduoko prestakuntza duala eskaini ahal izateko. Izan ere, lan arloko esparru juridiko egokia eta argia dago enpresek ikasketa horiek egiten dituzten unibertsitate ikasleak izateko erabili behar duten kontratu figurari dagokionez, lanbide heziketan gertatzen den bezala. Era berean, interesgarria izan liteke, ikasketa horien gorakada sustatzeko, administrazioak enpresek formula hori errazago erabili ahal izateko politikak abian jartzea.

aurkibidera bueltatzea

FAKULTATEKO IKASLEEK BARTZELONAKO POMPEU FABRA UNIBERTSITATEA BISITATU DUTE

Gure fakultateak Leizaola Fundazioarekin duen lankidetzaz hitzarmenaren ondorioz, aurreko urteetan bezala, Bartzelonara bidaia bat antolatu zen, 2019ko azaroaren 17tik 21era.

Bidaiaren helburua Bartzelona eta bertako unibertsitatea ezagutzea izan zen. Bidaiak jarduera akademiko baten izaera izan zuen ondorio guztietarako. Topaketaren antolakuntzan parte hartu dute, halaber, Europa Epsilon Foroak, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak, UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak eta Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak.

Hamabi ikaslek egin zuten bidaia (Leizaola Fundazioko bi ordezkariarekin batera): hamar Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduak eta bi Gizarte Langintzakoak. Bi unibertsitateetako

ikasleen arteko topaketan alderdi interesgarriak jorratu ziren, hala nola gradudunen laneratzea edo gizarte ekonomiak, kooperatibismoak eta hirugarren sektoreko erakundeek lan harremanen munduan aholkularitza enpresak eratzeko eskaintzen dituzten aukerak.

UPV/EHUK, Pompeu Fabra Unibertsitatearekin batera, gradudunen laneratze indize



handienetako bat du, eta topaketan, bai Katalunian, bai Euskal Herrian, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradudunen laneratzeko dauden esperientzia arrakastatsuek partekatu ziren. Gradu hori duten pertsonen lan merkatuan gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna nola sustatu ere eztabaidatu zuten.

Bidaia egin zuten bi ikasle elkarrizketatu ditugu, Belén Hernández eta Beatriz Badillo, beren esperientzia konta diezaguten:

Zergatik parte hartu duzue Leizaola Fundazioarekin fakultatean urtero antolatzen den bidaia honetan?

Katalunian lan munduarekin zerikusia duen guztia nola kudeatzen duten ezagutzeko modu interesgarria iruditu zaigu. Fakultatean gure azken urtea izanik, interesgarria iruditu zaigu, amaitzeko modu oso ilustratua.

Zer irakatsi dizue Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduoko ikasleekin egindako topaketak?

Ikusi dugu haiek karrerako hirugarren mailan espezialitatea hasten dutela, eta oso modu interesgarria iruditu zaigu, adar juridikoaren edo ekonomikoaren arabera espezializatu daitezkeelako.

Landu diren gai akademikoetako batzuk kooperatibak edo oinarrizko errenta izan dira. Gai horiei buruz unibertsitate hartako ikaskideen iritzia bera al duzue?

Bai, antzekotasunak aurkitu ditugu. Kooperatiben gaian euskal ereduak gehiegi miresten dutela iruditu zitzaigun. Nahiz eta guk uste dugun kooperatiben mundua ez dela esaten duten bezain polita, oso interesgarria izan da haien hautematea ezagutzea.

Sumatu al duzue unibertsitatean Kataluniako egungo egoera politikoaren islarik? Eta Bartzelonan, oro har?

Ez, normaltasuna da nagusi, eta badirudi giro asaldatua komunikabideetan bakarrik agertzen dela. Gure kide katalanen iritziz, egoera hori duela urte batzuk Euskal Herrian sumatzen zenaren antzekoa da.

Zer nabarmenduko zenukete gehien bisitatik?

Dena oso interesgarria iruditu zaigu; guztiari atera diogu etekina. Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatea ikaragarria da: ezohiko instalazioak ditu, egitura izugarria eta liburutegi ederra.

Zuen ikaskideei bidaia hau egitea gomendatuko zeniekete?

Bai, noski, oso gomendagarria da, kulturaren aldetik eta gizartearen aldetik.



Lan Harreman eta Gizarte Langintza Facultatea. Araba Campusa.



Lan harreman eta Gizarte Langintza Facultatea. Leioa Campusa.